

JAKINARAZTEN DA Alkateak 2024ko uztailaren 5ean ondorengo Dekretu hau eman duela:

“Zerbitzu Orokorretako eta Kontratazioko Teknikariak, 2024KOZB0009 espedientearen baitan, honako txostena helarazi du:

“Bergarako Udalak Askagain edo Iturriberi parkeko kantina edo zerbitzuen eraikina ustiatzeko deialdia ireki zuen. Adjudikazio hartzaile izateko eskaerak aurrezteko azkenengo eguna 2024ko maiatzaren 14a zen, eta lizitatzaile bakarra aurkeztu zen: Juan Cruz Agiñagalde Galarraga (72****Y).

Eskaintza onuragarriena berak aurkeztutakoa zela aitortuta, 10 egun balioduneko epea eman zion udalak Baldintzen Agiri Administratiboetan xedatutako dokumentazioa aurkeztu eta bermea gordailupean uzteko. Hala ere, 2024ko uztailaren 4an, honako idatzia aurkeztu du (Sarrera Erregistroa: 2024-6540):

“Nik, Juan Cruz Agiñagalde Galarraga jaunak (NAN: 72****Y), Bergarako Udalak sustatutako Askagain eta Iturriberi parkeko kantina edo zerbitzuen eraikina ustiatzeko deialdian (Esp.zk.a.: 2024KOZB0009) parte hartu duenak, honakoa DIOT:

Deialdiaren baitan nire eskaintza, bakarra, onuragarriena aitortu da, eta orain, 10 eguneko epean Plegu Administratiboan jasotako dokumentazioa aurkeztu beharra daukat. Hala ere, kantina ustiatzeko ideia birplanteatu dut, eta idatzi honen bitartez, deialdian atzera egiteko hautua hartu dudala adierazi nahi diot Bergarako Udalari, orain momentuan ez baita nire interesekoa.”

39/2015 Legeko 94.artikuluari jarraiki, prozesuan atzera-egiteko eskaera onartzea dagokio.

Halaber, ikusita ez dagoela bestelako lizitatzailerik, deialdia hutsik aitortzea dagokio.”

Horiek horrela,

ERABAKI DUT

LEHENENGOA: Bergarako Udalak Askagain edo Iturriberi parkeko kantina edo zerbitzuen eraikina ustiatzeko deialdiaren baitan Juan Cruz Agiñagalde Galarraga (NAN: 72****Y) jaunak aurkeztutako atzera egiteko eskaera onartzea eta deialdia hutsik aitortzea.

BIGARRENA: Juan Cruz Agiñagalde Galarraga (NAN: 72****Y) jaunari jakinaraztea eta deialdia hutsik aitortu izana argitaratzea udal webgunean.

HIRUGARRENA: Berri ematea Lurralde Batzordeari.”

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea dago, jakinarazpen hau argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki irizten den beste edozein errekurtsu ere jar daiteke.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan.

IDAZKARIA

